



*Irudibidez*

## **Mamua eta mamutzarrak**

*Joanba Bergara*

Nonnahiko, noiznahiko... gizakiarengan barren-barrenean erroturik. Era anitzetan nabarmentzen da erne zein lo dagoenean. Beldurraz ari naiz. Gizakiak bere garapenaren bidean hainbat mehatxu, oztopo, eragozpen eta askotako arriskuen itzalekin egin izan du topo betidanik; eta horrelaxe izango da geroan ere nonbait. Ez da harritzekoa. Bizitzeko grinak indar handia du-ta.

\* \* \*

Berebiziko axola du balizko arrisku eta mehatxuei behar adinako garrantzia eman eta aintzakotzat hartzeak gure burua babesteko. Bestela, kalte eta hondamendia izaten da ordaina maiz askotan; zenbaitetan, behin gaineratuz gero, osakaitu, konpondu, ezin diren kalte eta hondamendia.

\* \* \*


Arriskuak ikusi eta ondo neurtzea, hala ere, ez da beti gauza erraza izaten. Arituaren poderioz bakarrik, behin eta berriz kolpeak hartuz, ikasiko du gizakiak. Eta beti izango du zerbait ikaskizun.

\* \* \*

Ume txikiak gehienbat. Muga zenbait dela medio, etsaiez inguratutik dago beti umea. Lixiba, mahaia, sua, ura, eskailerak, labana eta abar luzea ditu umeak berezko arriskubide. Horrexegatik, beti ere umea ondo babestu eta beronen jokabideak gidatu nahian, beldurraz baliatu izan da zenbait guraso: "laztana, ez joan hara, mamua dago eta" eta horrelakoak. "Arrazoibide" indartsua umea gurasoen esanetara egon arazteko.

\* \* \*

Arrisku eta mehatxuek sentimendu bortitzak sortu ohi dituzte geure baitan: beldur neurotikoak, neurritz kanpokoak alegia, besteak beste. Indar ezkutu,



bihurri eta kontrolaezin hauen atzaparretan eroriz gero, burua galdu eta errealitatea neurri batean edo bestean desitxuratzeko zorian aurkituko gara.

\* \* \*

Desitxuratu, bai. Haurtzaroan, mamua, sakamantekasa eta beste hainbat kontu zirela medio, izutia nintzen ni. Iluntasuna, bakardadea eta ezezaguna ez nituen gogoko. Hotzikararen dardara sentitzen nuen gorputzean iluntzean baserrira esne bila joaten nintzen bakoitzean. Bideko intxaurrondo erraldoi haien atzaparrak behin baino gehiagotan sentitu nituen eztarrian. Mamuen ordua zen. Aske zebiltzan nonnahi, umeak ito nahian.

Egun argi hartan, belardiko gizon harekin gertatutakoa ere ez zen, ez, atsegina izan. Nik uste gizon hura beltzarana zela, oso beltzarana. Etxerako bidean egin nuen berarekin topo. Gero eta hurbilago nuen sakamantekas nazkagarri hura. Hura larria! Ia aurrez aurre nuenean, eta nere bihotzeko estutasuna arindu nahian edo, a zer nolako garrasia egin nuen! Guztiz asaldatuta, mamutzarraren irribarre zintzoaz ohartu nintzen segituan. Ez dakit zer esan zidan. Spielberg-en ET bezalako mamutzar maitagarria zen hura nonbait. Baina nik artean ez nuen ET ezagutzen. Horregatik, belardian barrena goruntz jarraitu nuen. Mamutzarrak, aldiz, beheruntz. Nik askoz azkarrago, halere.

\* \* \*

Kontuak kontu, giza harreman guztietan ageri ohi dira mamuak noiz edo noiz. Irakasleak ikasleekikoetan, alderantzizkoetan bezalaxe, eta irakasleak lankideekin izandakoetan besteak beste. Gogoan dut hamabi urteko ikasle bihurri hark, ni ikasgaia azaltzen ari nintzela, lasai asko esandakoa: "maisua, hara zer dioen honek: zu monstroa zarela". Iji-aja barre egiteko aitzakia ederra ikaskideentzat. Eta irakasleen gelan zenbatetan esaten direnak ere ez dira, ez, samurragoak: "infernura joateko ordua iritsia da" kasu. Egia esan, batzuetan zenbait ikastalderekin aritzea ez da esperientzia gozoa, ez. Etsaiek akabatuko gaituztelako beldurra ez da inondik inora batere atsegina.

\* \* \*

Onartu eta maite izango ote gaituzten beldur, garbi eta indartsu sentitu ohi ditugu mamuen mehatxuak. Baina mamuak eta mamutzarrak hamaika aldiz izatez ez dira egiazkoak, gure beldurrek eta ziurtasunik ezak barruan sortzen dizkiguten fenomenoak baino.

\* \* \*

Iragazki ideologikoez itsututa edota beldurraren iragazkiek burua nahastuta, mamu ugari eta tankera askotakoak sortu ohi ditugu. Etsaia beti etsai.

Horrexegatik, berau ez ezik beronek esana ere arbuiatu egin behar. Ezer onik espero al daiteke, ba, mamutzar batengandik?

\* \* \*

Norbera nolako, besteak uste halako. Etsaia amorekaitza, ez-jakina... delako usteak zenbaitetan gure hutsune, gabezia eta ezak besterik ez ditu islatzen. Oharkabe geure mugak eta arazoak besterengana zabaltzen badi-tugu, eta geure buruarekiko zalantzak besterengan proiektatzen, mamu ugariz inguraturik biziko gara. Norbera askotan bere buruaren etsairik okerrena.

\* \* \*

Badago mamuen aurka “sendabide” bat, porrota eta hondamena besterik ekarriko ez diguna: autodefentsa, alegia. Hesiak, babes-murruak eraikitzen ditugu propio hainbatetan *nor bere* rolaren gibelean izkutatuz, geure burua defendatzeko asmotan: “agintea nere eskuetan dago; zuek, beraz, nere esanetara”, “neu naiz hemen jakitun bakarra”... Eta graffitiak, goitizenak, itxurak eta gaiztakeriak ordainetan. Sendabide txarra, beraz. Ez bait dio nor beraren eta besteren garapenari biderik zabaltzen. Beldurrak areagotu egiten dira, ustezko etsaiak agian egiazko bilakatuz. Bai. Bide horretatik, mamuak hezurmamitu egingo dira, gero eta itxura nazkagarriagoa hartuz.

\* \* \*

Badago guztiz alderantzizko sendabidea: gardentasunarena, babes-murruen suntsitzean datzana; gauza guztien gainetik, baldintzarik jarri gabe, elkarren arteko onespena ezaugarri duena. Nork bere mugak, alderdi ahulak eta jakintz alorreko gabeziak aitortu eta azaldu egiten ditu, eta besteekiko beldurrak eta usteak argi eta garbi adierazten, horrela enpatiarako bideak zabalduz.

\* \* \*

Jose Manzana nere antropologia filosofikoaren irakasle zanak behin esandakoa datorkit gogora. Su eta gar ari zen, beti bezala, filosofo baten usteak azaltzen. Eta bapatean ikasle baten iruzkina: “ez nago batere ados zuk esan berri duzunarekin”. “Ezta neu ere”—irakaslearen erantzun bizkorra—, “baina utz nazazu begirune pittin batez filosofoaren erakutsiak azaltzen”. Enpatiaren adibide ederra. Nahiz eta bat ez etorri, filosofoaren larruan sartzen ahalegindu, aurreiritzirik gabe, filosofoaren teoria ez desitxuratze-ko.

\* \* \*

Sendabide paradójikoak biak. Hesiak jartzeak “guda” galtzera garamatza. Kentzeak, aldiz, garaipenera; indar itsu eta izkutuak, mamuak, menderatze-za; askatasun psikologikora.